

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA SAILA

2099

AGINDUA, 2012ko apirilaren 24koa, Kulturako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko toki-entitateetan Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN) garatzeko diru-laguntzak emateko modua arautzen duena.

Lehendakariaren maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretuak Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioeko sailak sortu, ezabatu eta aldatu eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatu zituen. Dekretu horren 15. artikulua Kulturako Sailari, besteak beste, honako hauen inguruko egitekoak izendatu zizkion: hizkuntza politika eta euskararen sustapena.

Bestalde, 45/2011 Dekretuak, martxoaren 22koak, Kultura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenak, honako zeregin hau ezarri zion Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari (aurrerantzean HPS) bere 14.2.e) artikuluan (EHAA, martxoaren 25ekoa, 59. zk.): Euskararen Erabilpena Arautzen duen azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea eta gainerako xedapen osagarriak modu egokian garatu eta bete daitezzen begiratzea, betiere beste administrazio-organo batzuek bereziki esleituta dituzten egitekoak urratu gabe.

Halaber, HPSk bere egiten ditu Euskararen Aholku Batzordearen «Euskara 21, Itun Berritu Baterantz» izenburudun liburuan jasotako XXI. mende hasierako hizkuntza politikaren lehentasunezko ildoak.

Jarriak dauzkan zereginak betetze aldera, Kultura Sailak urtero-urtero deitu eta ebatzi izan ditu Euskal Autonomia Erkidegoko toki-entitateetan Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (aurrerantzean EBPN) garatzeko diru-laguntzak.

Eusko Legebiltzarrak, 1999ko abenduaren 10ean egindako osoko bilkuran, EBPN berretsi zuen. Plan hori HPSk Euskararen Aholku Batzordearekin elkarlanean burutu zuen eta Eusko Jaurlaritzak onartu zuen 1998ko uztailaren 28an.

EBPNren helburu nagusia hau da: «Euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak eskaintzeko behar diren hizkuntza politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea; maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea». Hori horrela, toki-entitateek barruko jardunari begira egiteko nagusia dute: herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko plana onartzea eta garatzea. Kanpoko jardunari begira, berriz, hiru eginbehar nagusi dituzte: hiztunek euskara ikastea edota duten gaitasuna sendotzea; harreman-sare euskaldunak egituratzen laguntzea, eta euskarazko produktuak eta zerbitzuak zein horien gaineko informazioa zehatza bideratzea.

Hori guztia kontuan izanik, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

1.– Agindu honen xedea Euskal Autonomia Erkidegoko toki-entitateetan EBPN garatzeko diru-laguntzak emateko modua arautzea da.

2.– Agindu honen bidez ezarritako diru-laguntzetarako kopurua 1.630.000 eurokoa da.

2. artikulua.– Entitate onuradunak.

1.– Agindu honek araututako diru-laguntzen onuradunak Euskal Autonomia Erkidegoko toki-entitateak eta, euren xedeen artean hizkuntza normalizazioa izanez gero, toki-entitateen menpeko edo haiei lotutako zuzenbide publikoko entitateak izan daitezke; era berean, onuradun izan daitezke xede horrekin lankidetzeta-hitzaumen bidez elkartutako toki-entitateak.

Laguntza-deialdi honetatik kanpo geratzen dira euskara zerbitzua lurralde historiko batean baino gehiagotan eskaintzen duten toki-erakundeak.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorrak edo erakunde autonomiadunek ezaugarri bereko beste laguntza edo diru-laguntzaren batzuk eman izana dela-eta horiek itzultzeko edo zigortzeko prozesuren bat oraindik ere izapidetzen ari bada, prozesu hori amaitu egin behar da onuradunei diru-laguntzak eman eta, kasua balitz, ordaindu ahal izateko.

3.– Laguntza-deialdi honetara ezin izango dira aurkeztu honako pertsona fisiko edo juridikoak: zigor eta administrazioaren arloan diru-laguntza publikoak jasotzeko debekurik dutenak, ezta laguntzak jasotzeko ezgaitzen dituen legezko debekuetan sartuta daudenak ere. Era berean, ezin izango da sexu arrazoiengatik diskriminaziorik egitearren zigortua izan, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakume eta Gizonen berdintasunari buruzkoak, xedatutakoaren arabera.

4.– Onuraduna udalaz gairik toki-entitatea izanez gero, eskaerak zehaztu egin behar du zein udalek parte hartzen duten jardueretan.

5.– Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesuari buruzko apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuari jarraituz, eskatzaileak lanpostu-zerrendan hizkuntza-eskakizunak eta derrigortasun-datak ezarrita izatea ezinbestekoa izango du.

6.– Eskatzailea toki-entitate baten menpeko edo toki-entitate bati lotutako zuzenbide publikoko entitatea izanez gero, artikulua honen 5. idatzi-zatian adierazitako betekizuna dagokion toki-entitateak ere betetzen duela frogatu behar du.

7.– Eskatzaileek beren administrazioetan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana onartuta, indarrean eta HPSra bidalia izan behar dute. Halaber, EBPNren plan estrategikoa, onartuta, indarrean eta HPSra bidalita izan behar dute, EBPNren diseinua lehengo aldiz egin behar dutenek izan ezik. Azkenik, denek EAEko herri administrazioan Euskararen Erabilera Normalizatzeko IV. Plangintzaldiaren amaierako datu-bilketan parte hartu beharko dute, horretarako HPSk abian jarri duen prozeduran ezarritako epeak betez. Baldintza hauek bete ezean, diru-laguntza eskabidea bazterrean geratuko da.

8.– Laguntza-deialdi honetatik kanpo geratzen dira ondoren adierazten diren estatu laguntza erregimenaren bidez legez kanpoko eta bateraezinak diren diru-laguntzak jaso dituzten erakundeak: Araba I, Araba II eta Araba III (CR 48/99, CR 49/99 eta CR 58/99); Gipuzkoa I, Gipuzkoa II eta Gipuzkoa III (CR 50/99, CR 53/99 eta CR 59/00) eta Bizkaia I, Bizkaia II eta Bizkaia III (CR 52/99,

CR 54/99 eta CR 60/00) baldin eta jasotako diru-laguntza eta dagozkion interesak blokeatutako diru-kontu batera itzuli ez badituzte.

3. artikulua.– Diru-laguntzen organo kudeatzailea.

Honako deialdi honen kudeaketa Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzari dagokio.

4. artikulua.– Izapidetze elektronikoa.

1.– Entitate interesdunek bide elektronikoak erabili behar dituzte prozedurako izapide guztiak egiteko, kontsultatzeko eta eskatzeko. Ez da bestelako bitartekorik onartuko.

2.– Izapidetze elektronikoa honako arauak erregulatzen dute: otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuak, Administrazio Elektronikoari buruzkoak; apirilaren 29ko 72/2008 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta bere erakunde autonomiadunen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzkoak; eta 2006ko otsailaren 9ko Ebazpenak, Informatika eta Telekomunikazio zuzendariarena, E-Administrazioarako Plataforma Teknologikoa –Platea– ezartzen duen dokumentua onartzeko denak.

3.– Eskabideak, erantzukizunpeko adierazpenak, justifikazioak eta bestelako ereduak gaineko zehaztapenak euskadi.net-eko egoitza elektronikoa honetan daude eskuragarri:

https://www.euskadi.net/y22-izapide/eu/contenidos/ayuda_subvencion/12ebpn/eu_ebpn/ebpn_deialdia.html

Eskaeraren ondorengo izapideak honako gunearen bitartez egin beharko dira: <http://www.euskadi.net/misgestiones>.

5. artikulua.– Entitate eskatzaileak dituen betebeharren egiaztapena.

1.– Entitate eskatzaileak espresuki baimendu dezake gainerako datu edo dokumentuak organo kudeatzaileak lortu edo egiazta ditzan, Administrazio Publikoari dagokion egiaztapen ahalmena, kontrola eta ikuskaritzari kalterik egin gabe.

2.– Azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuan, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena, 50.6 artikuluan ezarritakoa aplikatuz, eskabide normalizatuan ondorengo betekizunak egiaztatuko dira:

– Erantzukizunpeko adierazpena, ziurtatzeko beste administrazio publiko edo erakunde publiko nahiz pribatu batzuetatik ez duela jasotzen ebazpen honetan araututako diru-laguntzaren helburu bera duen laguntzarik; edo laguntza eskatu duela eta eman egin diotela.

– Erantzukizunpeko adierazpena, egiaztatzeko entitateak ez duela diru-laguntzak edo laguntza publikoak jasotzea eragozten dion administrazio-zehapen edo zehapen penalik, ez eta laguntzak jasotzeko gaitasuna kentzen dion lege-debekurik ere.

3.– Azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuan, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena, 51.1 bis artikuluan ezarritakoa aplikatuz, eskabide normalizatuan ondorengo betekizunak egiaztatuko dira:

– Erantzukizunpeko adierazpena, ziurtatzeko toki-entitatea prest dagoela HPSko balorazio-batzordeari behar duen informazioa emateko dokumentazioaren inguruan sortutako zalantzak argitzeko.

– Erantzukizunpeko adierazpena, ziurtatzeko Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana eta EBPNren Plan Estrategikoa onartuta, indarrean eta HPSra bidalia dutela.

– Erantzukizunpeko adierazpena, ziurtatzeko Euskararen Erabilera Normalizatzeko IV. Plangintzaldiaren amaierako datu-bilketan parte hartzeko prest dagoela.

– Erantzukizunpeko adierazpena, eskabidean eta dokumentazioan jasotako datuak egiazkoak direla adierazteko, eta laguntza hauen onuradun izateko, indarrean den araudian ezarritako betekizunak konplitzen dituela adierazteko.

4.– Entitate eskatzaileak erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du ziurtatzeko ez dutela jaso estatu laguntza erregimenaren bidez legez kanpoko eta bateraezinak diren diru-laguntzak.

5.– Erregistratuta egon ezean, edo Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Ogasun Saileko Hirugarrenaren Erregistroan dauden banku-datuak aldatu nahi izanez gero, hirugarrenaren datuen alta inprimakia aurkeztu beharko du. Inprimaki hori euskadi.net-en dago.

6. artikulua.– Eskabideak aurkeztea, epeak, denbora barrutia eta dokumentazioa.

1.– Laguntza-deialdi honek 2012an burutuko diren egitasmoak baino ez ditu kontuan hartuko. Hori dela eta, deialdi honetara jotzen duten egitasmoak gauzatzearen ondorioz eskaini, eman edota gizarteratu beharreko jarduerak, zerbitzuak eta produktuak 2012ko abenduaren 31 baino lehen eskaini, eman edota gizarteratuko dira.

2.– Laguntza-deialdi honetan parte hartu nahi duen orok nahi dituen beste eskabide aurkezteko aukera izango du, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hilabeteko epean.

3.– Eskabideak bitarteko elektronikoen bitartez aurkeztuko dira aipatutako euskadi.net egoitza elektronikoa sartuz.

4.– Entitate eskatzaileek nahi duten hizkuntza ofizialean aurkez ditzakete laguntza-eskaerak eta haiei lotutako dokumentazioa. Halaber, laguntza-eskaeraren ondoriozko jardunetan, eta prozedura osoan, erakunde eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da, euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeko 5.2.a) eta 6.1 artikuluetan ezarri den bezala.

5.– Eskabidea (1. eranskina) honako dokumentazioaz lagunduta aurkeztu beharko da:

Eskatzaile guztiek aurkeztu beharrekoa

a) 2. eranskina (Aurrekontua), behar bezala beteta.

b) 2012ko EBPNren kudeaketa-plana (IRATI aplikazioan), EBPNren diseinua lehenengo aldiz egin behar dutenek izan ezik.

Kasuan-kasuan aurkeztu beharrekoa:

c) 3. eranskina. 2012. urtean egingo diren ekintza berri, aitzindari eta originalen zerrenda.

d) 4. eranskina. Jardueretan parte hartzen duten udalerrriak. Soilik mankomunitate eta koadrilen kasuan, baldin eta administrazioaren esku ez badago.

e) Udalbatzak edo pareko organoak indarrean dagoen Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana onartu zuela adierazten duen ziurtagiria (administrazioaren esku ez badago).

f) Udaltzak edo pareko organoak indarrean dagoen Plan Estrategikoa onartu zuela adierazten duen ziurtagiria (administrazioaren esku ez badago).

7. artikulua.– Aurkeztutako eskabidean eginiko akatsen zuzenketa.

Ikusten bada eskabidea onartzeko eskatzen diren dokumenturen bat falta dela edo forma-akatsak daudela, edo balorazioa egiteko aurkeztu diren dokumentuetan akatsak daudela, hamar (10) egun balioduneko epea emango zaio interesdunari akatsa zuzentzeko edo aurkeztu beharreko agiriak aurkezteko. Era berean, ohartarazi egingo zaio ezen, epe hori igaro eta zuzenketarik egin ez bada, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela, aurrez jakinaraziko zaion ebazpen baten bidez, edo dagokion izapidea egiteko eskubidea galduko duela.

8. artikulua.– Diruz lagunduko diren egitasmoak.

A) Hauek dira diruz lagunduko diren egitasmoak:

1.– EBPNren diseinua lehenengoz egitea, onartuta ez dutenen kasuan.

2.– EBPN garatzeko burutzen diren ekintzak, deialdi honetan espresuki artikuluko honetako B atalean kanpo uzten direnak kontuan hartuz.

Haur, gaztetxo eta gazteen aisiarekin lotutako programak (ludotekak, gaztegunek, udaleku irekiak eta gisakoak) lagunduko dira, baina diru-kalkuluetarako aurrekontuaren erdia soilik hartuko da kontuan.

B) Segidan adierazitako egitasmoak laguntza-deialditik kanpo utziko dira.

1.– Euskalduntze-alfabetatzera bideratutako programak eta euskara ikasteko diru-laguntzak

2.– Ikastetxeetan eskola orduetan garatzen diren programak.

3.– Administrazio esparrukoak, aitzindariak edota berriak ez badira.

4.– Lantokietako euskara planak, baldin eta HPSk kudeatzen duen LanHitz deituriko deialdiaren eremukoak badira.

5.– Toponimia lanak.

6.– Azterketa soziolinguistikoak.

7.– Hedabideei ematen zaizkien laguntzak.

8.– Euskarazko iragarki ofizialak.

9.– Webgune, software, eduki, aplikazio, tresnak... diruz laguntzeko programak, baldin eta HPSk kudeatzen duen IKT deituriko deialdiaren eremukoak badira.

Laguntza deialdi honetan tokia izan dezaketen arren kanpoan utziko dira Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko HPSk beste diru-laguntzetarako deialdien bidez 2012an diruz laguntzen dituen egitasmoak, bai eta zuzenean diruz lagundutakoak.

Lanpostu-zerrendako pertsonalari dagozkion gastuak ere deialditik kanpo utziko dira. Aurrekontua betetzerakoan, berariaz aitortu behar dute eskatzaileek lanpostu-zerrendako pertsonalaren gastuari dagokien zenbatekoa kendu dela.

9. artikulua.– Diru-laguntzak esleitzeko prozedura.

1.– Laguntza-proposamena lantzeko berariaz eraturako Balorazio-batzordeak eskabideei buruzko ebazpen-proposamena landu eta diruzko zenbatekoak finkatze aldera, honako urrats hauek emango ditu, hurrenez hurren:

1.1.– Aurrekontuari eta diru-eskabideari dagokienean:

a) Eskabidean aurkeztutako aurrekontua eta egindako diru-eskabidea hartuko ditu abiapuntutzat.

b) 8. artikuluko B puntuan finkatutakoaren haritik, laguntza-deialdi honekin bat ez datozen gastuak alde batera utziko ditu.

c) Aurreko eragiketaren ondorioz, diru-laguntza kalkulatzeko garaian aurrekontu araztua hartuko da oinarri.

d) Aurrekontua arazten den bakoitzean, entitate eskatzaileak egindako diru-eskabidea egokituko da, betiere, aurrekontua egokitu den maila berean.

1.2.– Puntuei dagokienean:

a) Esleipen-prozedurari ekin aurretik, balorazio-fasera igarotako egitasmoak baloratuko dira, Agindu honen 10. artikuluan finkatutako irizpideen arabera.

b) Puntu horiek araztutako aurrekontuaren estalpen-indizea zehaztuko dute eta egitasmo osoaren defizitaren gainean aplikatuko dira.

2.– Toki-entitate bakoitzari esleitu beharreko laguntza-kopurua zehazteko garaian, 11. artikuluan finkatutako mugak gordeko dira.

3.– Deialdi hau lehiaketa bidez ebatziko da. Diru-laguntzak esleitzerakoan, agindu honetako 10. artikuluan ezarritako diru-laguntzak esleitzeko irizpideen arabera eskabideen arteko hurrenkera finkatzeko aurkeztutako eskabideak elkarren artean erkatuko dira, eta esleipenak balorazioan 25 puntutik gora lortu dutenen artean egingo dira.

4.– Diru-laguntzak esleitzeko hurrenkera:

– Lehenik aztertuko dira soilik EBPNren diseinua lehenengoz egiteko aurkeztutako egitasmoak. Diru nahikorik ez badago, hainbanaketa egingo da onuradunen artean.

– Ondoren EBPNren ekintzak garatzeko aurkeztutako egitasmoak aztertuko dira eta, halaber, diru nahikorik ez badago, hainbanaketa egingo da onuradunen artean.

10. artikulua.– Diru-laguntza esleitzeko irizpideak.

Diru-laguntzei buruzko zenbatekoa esleitu, finkatu eta ebazpen-proposamena egiteko balorazio-batzordeak irizpide hauek jarraituko ditu:

1.– Soilik EBPNren diseinua lehenengoz egiteko eskatzen duten toki-entitateen kasuan.

Aurkeztutako egitasmo guztiek gehiengo puntuazioa (100 puntu) izango dute.

2.– EBPNren ekintzak garatzeko eskatzen duten toki-entitateen kasuan eta EBPNren diseinua lehenengoz, 2012 urtean, deialdian zehazten den azken egunaren aurretik, onartzen dutenen kasuan.

Puntuazioa honela banatuko da:

a) Kudeaketa plana (80 puntu). IRATI aplikazioa egokitasunez betetzea: ekintzen kodifikazioa, deskribapenen ulergarritasuna, xede-taldea ondo adierazita egotea (40 puntu). Ekintzen aniztasuna eta ugaritasuna: ahalik eta esparru eta helburu gehienei aurre egitea zehaztutako ekintzen bidez (20 puntu). Ekintzen berritasuna eta orijinaltasuna: ikuspegi berriarekin egiten diren ekintzak egitea eta balio erantsia duten ekintzak egitea (20 puntu).

b) Aurrekontua (20 puntu): toki-entitatearen euskararen aurrekontua biztanleko (20 puntu).

Horrezaz gain, beste bi irizpide hauek aplikatuko dira toki-entitateen ezaugarri berezien arabera:

c) 5.000 biztanletik beherako udal euskaldunenei (% 70etik gorako euskaldunak dituztenei) eta erdaldunenei (euskararen indizea % 40tik beherakoa dutenei) eskaera baloratzeko garaian % 25eko puntuazio gehigarria emango zaie.

d) Dentsitate gutxiko mankomunitateetan edo kuadrilletan (km²-ko 100 biztanle baino gutxiago dituztenak) euskararen aurrekontua 7.000 euroko gehigarri batez lagunduko da. Kopuru hori a) eta b) atalean zehaztutako irizpideen arabera emandakoari gehituko zaio.

Biztanle-kopuruaren gaineko datuak, euskara-mailaren gaineko datuak eta azaleraren hedaduraren gaineko datuak Eustatek modu ofizialean argitara emandako erroldako datuetatik eskuratuko dira, konkretuki honako txosten hauetatik, hurrenez hurren: «Euskal AEko biztanleria espazio-eremuaren eta jaioterriaren arabera. 2010-01-1», «2 urte eta gehiagoko biztanleria, lurralde-eremu eta euskara-maila orokorraren arabera. 2006» eta «Azaleraren hedadura eta altitudea, lurralde-eremuei jarraiki. 2011».

Balorazio-batzordeak abiapuntutzat hartuko duen informazioak IRATI aplikazioan egon beharko du eskabideak aurkezteko azken egunaren hurrengo egunean.

Kasu guztietan, aurkeztutako kudeaketa-planaren kalitatea balioesteko idatzizko txostena egingo du Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzak. Txostenetan adierazitakoa aintzat hartuta Balorazio-batzordeak proiektuaren kalitateagatik emandako puntuazioa finkatuko du.

11. artikulua.– Diru-laguntzaren zenbatekoa eta bateragarritasuna.

Diru-laguntzaren zenbatekoa: Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko HPSk ez du inolaz ere toki-entitateak berak egitasmo osoa aurrera eramateko erabilitako diru-kopurua baino kopuru handiagoa emango, 10.2 artikuluan d)atalean aipatzen diren toki-entitateen kasuan izan ezik.

Toki-entitate onuradunari gehienez ere aurkeztutako aurrekontu osoaren % 40ko diru-laguntza emango zaio. Horrezaz gain, toki-entitate bakoitzari agindutako guztirako diru-kopuruak ezingo du 70.000 euroko muga gainditu.

Gehienezko muga horren azpian tarteko gehienezko mugak ezarriko dira, kasuan kasuko biztanleria kontuan izanda. Muga horiek hauek izango dira: <5.000 biztanle (15.000 euro); <10.000 biztanle (25.000 euro); <20.000 biztanle (35.000 euro); <50.000 biztanle (50.000 euro); ≥50.000 biztanle (70.000 euro).

EBPN 2012. urtean lehenengoz onartu eta deialdira Kudeaketa Plana aurkezten duten toki-entitateek gehieneko mugak bestelakoak izango dituzte. Honako hauek: <5.000 biztanle (10.000 euro); <10.000 biztanle (17.000 euro); <20.000 biztanle (23.500 euro); <50.000 biztanle (33.500 euro); ≥50.000 biztanle (50.000 euro).

Biztanle-kopuruaren gaineko datuak Eustatek modu ofizialean argitara emandako erroldako datuetatik eskuratuko dira, konkretuki honako txosten honetatik: «Euskal A Eko biztanleria espazio-eremuaren eta jaioterriaren arabera. 2010-01-1».

Beste diru-laguntza batzuekiko bateragarritasuna: deialdi honetan aurreikusitako diru-laguntzak beste edozein erakunde publiko zein pribatuk xede berbererako eman ditzaketenekin bateragarriak dira, betiere gainfinantzaketarik eragiten ez badute. Gainfinantzaketarik badago, diru-laguntzatik dagokion kopurua kendu egingo zaio onuradunari lagundutako jardueraren kostu osoari egokitu arte.

Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko 2 eranskinean toki-entitateak eskatu dituen bestelako diru-laguntzen berariazko aitortpena egin behar du.

12. artikulua.– Balorazio-batzordea.

1.– Eskabideak aztertu eta baloratzeko ondorengo mahaikideez osatutako Balorazio-batzordea eratuko da:

a) Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria, Patxi Martínez de Marigorta Guzmán, Balorazio-batzordearen buru izango da. Bere ordezkoa: Xabier Zabaltza Pérez-Nievas.

b) HPSko Euskara Sustatzeko zuzendaria, M.^a Begoña Muruaga Laca. Bere ordezkoa: Joseba Iñaki Uribe Burgoa.

c) HPSko Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako zuzendaria, Ivan Igartua Ugarte.

d) Bizkaiko Foru Aldundiko Hizkuntza Gizarteratzeko atalaren burua, Patxi Alberdi Asteinza. Bere ordezkoa: Gotzon Egia Goienetxea (Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkaria).

e) Euskal Udalen Elkartearen (Eudel) ordezkaria, Josu Lartategi Yustos. Bere ordezkoa: Iñaki Galdeano Larizgoitia.

f) Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzako Herri Administrazioetan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planak jarraitzeko arduraduna, Jokin Azkue Arrastoa. Bere ordezkoa: M.^a Jesús Sánchez Castañares.

g) Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzako teknikaria, Jose Luis Ugarte Garrido. Bere ordezkoa: Gema Loinaz Sorozabal. Idazkari lanetan arituko da, iritzia emateko ahalmenarekin eta bozkatzeko eskubiderik gabe

2.– Balorazio-batzordeak, diru-laguntzak esleitzeko irizpideetan oinarrituz, Hizkuntza Politikarako sailburuordeari ebazpen-proposamena aurkeztuko dio.

3.– Balorazio-batzordearen osaeran errespetatu egingo da azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 28. eta 29. artikuluetan parte ez hartzeari eta errefusatzeari buruz ezarritakoa.

13. artikulua.– Ebazpena.

1.– Balorazio-batzordearen proposamena ikusita, Hizkuntza Politikarako sailburuordeak agindu honek arautzen dituen diru-laguntzak esleitzeko ebazpena eman eta jakinaraziko du Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik sei hilabeteko epean.

2.– Aurrekoari kalterik egin gabe, ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da herritar orok jakin dezan.

3.– Aurreikusitako epean interesdunak ez badu ebazpenaren jakinarazpenik jaso, eskabidea gaitzetsizat joko da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44.1 artikuluan ezarritako ondorioetarako.

4.– Laguntza-eskatzaileraren bat hartutako ebazpenarekin ados ez bada eta gora jo nahi badu, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik hilabeteko epean Kulturako sailburuari gorako errekurtsioa aurkezteko aukera izango du.

14. artikulua.– Diru-laguntzaren onarpena.

Ebazpena jakinarazten den egunean hasi eta ondorengo hamar (10) egun balioduneko epean diru-laguntzaren eskatzaileak berariaz eta idatziz uko egin ezean, diru-laguntza onartutzat emango da.

15. artikulua.– Onuradunen betebeharrak.

Deialdi honetan arautzen diren diru-laguntzen entitate onuradunak betebeharrak hauek ditu:

1.– Onuradunak bestelako entitate publiko zein pribaturi eskatutako diru-laguntzen egoeran edota zenbatekoan gertatutako edozein aldaketaren berri eman behar dio Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzari.

2.–Toki-entitate onuradunek proiektuen aurrekontuan % 40ko ekarpena egin behar dute gutxienez, 10.2 artikuluan d) atalean aipatzen diren toki-entitateen kasuan izan ezik.

3.– Kontrol Ekonomikorako Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak laguntzen xedearen fiskalizazio-funtzioak betetze aldera eskatutako informazio guztia eman behar dute.

4.– Diru-laguntza eskabide-orrian zehaztutako helburu zehatzetarako erabili behar dute.

5.– Eskabide-orrian aurkeztutako egitasmoa bere osotasunean gauzatu behar dute.

6.– Indarrean dauden lege eskakizunak bete behar dituzte jabego intelektualari, egile-eskubideei, lege-gordailuari, banaketari eta abarri dagokienez.

7.– Laguntzagai diren egitasmoek giza eskubideak eta pertsonen arteko bizikidetasun-balioak errespetatu behar dituzte. Ondorioz, egitasmo horiek ezin izango dute herritarrei iraingarri gerta dakiekeen ikur edo elementurik jaso, ezta beren duintasunari kalte egiten dieten edo indarkeriaren justifikazioa iradokitzen duten ikur edo elementurik ere.

8.– Adierazpen- eta informazio-askatasunari begirunea erakustea. Horretarako, nork bere deontologiako arauak beteko ditu eta, aldi berean, politika-aniztasuna eta politika-, gizarte- eta kultura-taldeei zor zaien aukera-berdintasuna bermatuko duen informazio egiazkoa eta objektiboa sustatuko du.

9.– Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean xedatutakoari jarraituz, hizkera sexistarik ez erabiltzea, eta gizonen eta emakumeen rolei dagokienez, erabilera estereotipaturik ez egitea.

10.– Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren menpeko HPSk emandako babesaren berri adieraztea, betiere 16. artikuluan esandakoaren arabera.

16. artikulua.– Kultura Sailaren aipamena.

Toki-entitate onuradunek agerpen publikoetan erabiltzeko diren iragarki txarteletan, argazkietan eta gainerako material idatzietan, ikus-entzunezkoetan edo elektronikoenetan Kultura Sailaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eskainitako babesa adierazi behar dute. Horretarako Eusko Jaurlaritzaren logotipo normalizatua erabili behar dute.

17. artikulua.– Ez-betetzeak.

1.– Betebeharrak bete gabetzat joko dira honako kasu hauetan:

a) Jasotako diru-laguntza, osorik zein zatika, agindu honetan zehaztutakoez beste jardueretarako erabiltzea.

b) Honako Agindu honen 15. artikuluan zehaztutako betebeharrak ez betetzea.

c) Hala badagokio, kitapen-ebazpenak zehaztutako kopurua ez itzultzea horretarako emandako epean.

d) Beste xedapen batean, orokorrean, nahitaezkoztat jotzen diren gainerako egitekoak ez betetzea.

2.– Ez-betetzereen bat gertatuz gero, jasotako dirua eta horren legezko interesak itzuli behar zaizkio Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan adierazitakoa betez eta horretarako ezartzen den prozedurari jarraituz (1/1997 Legegintzako Dekretua, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena; 698/1991 Dekretua, EA Eren Aurrekontu Orokorren pentzutan ematen diren diru-laguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duena eta horien kudeaketan parte hartzen duten Entitate Laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen dituena).

18. artikulua.– Diru-laguntzaren ordainketa.

Ordainketa bi zatitan egingo da:

a) Lehenengo ordainketan diru-laguntza osoaren ehuneko berrogeita hamabosta (% 55) ordainduko da, ebazpena jakinarazi eta hamar (10) egun balioduneko epea amaitzen denetik bi (2) hilabeteko epean. Dena den, hamar (10) egun balioduneko epe hori baino lehen HPSn onarpen-agiria jasotzen bada, ordainketa bideratzen hasiko da.

b) Bigarren ordainketan, hala badagokio, gainerako ehuneko berrogeita bosta (% 45) ordainduko da, diru-laguntza justifikatzeko agiri guztiak jaso eta ontzat eman ondoren, hilabeteko epean.

19. artikulua.– Diru-laguntzaren justifikazioa.

2013ko apirilaren 10a baino lehen aurkeztu beharreko dokumentazioa:

1.– EBPNren diseinua lehenengoz egin den kasuetan.

1.1.– EBPNren diseinua eta 2012ko Kudeaketa-plana Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzara bidali beharko da, udalbatzaren onarpenari atxikita. EBPNren diseinua eta dagokion Kudeaketa-plana helarazteko HPSk EBPNren kudeaketarako eta jarraipenerako eskaintzen duen IRATI aplikazioa erabili behar da.

1.2.– Ziurtatze-ahalmena duen organoaren ziurtagiria: entitate onuradunetako idazkariak edo idazkari kontu-hartzaileak adieraziko du esleitutako diru-laguntzen objektua eta xedea bete dela, eta horretarako erabilitako diru-kopurua ere zehaztuko du (ikus 5. eranskina).

2.– EBPNko ekintzak garatu diren kasuetan.

2.1.– IRATI aplikazioan adierazi beharko da EBPN garatzeko ekintza bakoitzaren betetze maila.

2.2.– Ziurtatze-ahalmena duen organoaren ziurtagiria: entitate onuradunetako idazkariak edo idazkari kontu-hartzaileak adieraziko du esleitutako diru-laguntzen objektua eta xedea bete dela, eta horretarako erabilitako diru-kopurua ere zehaztuko du (ikus 5. eranskina).

Era berean, xede berbererako jasotako bestelako diru-laguntzak adierazi behar dira, baldin eta aurretik adierazi ez badira, eskatzaileak eskabidea aurkezterakoan haren eragina ezagutzen ez zuelako.

20. artikulua.– Jarraipen-batzordea.

Justifikaziorako aurkeztutako dokumentazio guztia aztertu eta ontzat ematea izango da bere zeregin nagusia, bai eta azterketa horren ondorioz bideratutako ordainketa osoa edota likidazio-ebazpenaren inguruko proposamenak Hizkuntza Politikarako sailburuordeari egitea. Honako hauek osatuko dute jarraipen-batzordea:

- Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria, batzordearen buru.
- Herri administrazioetan erabilera planak jarraitzeko arduraduna.
- Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzako teknikaria.

21. artikulua.– Ebazpenaren aldaketa eta kitapen-ebazpena.

1.– Diru-laguntza emateko kontuan hartu diren inguruabarretako bat aldatzen bada, diru-laguntzaren helburua betetzat jotzen dela, diru-laguntza eman duen ebazpena ere aldatu ahal izango da. Hori dela eta, Hizkuntza Politikarako sailburuordeak bidezko likidazio-ebazpena emango du, eta, ebazpen horretan, emandako diru-laguntzaren zenbatekoa berregokituko da.

2.– Honako Agindu honen pentzutan emandako diru-laguntzaren onuradunak eman eta eskuratutako zenbatekoa eta legez aplikagarriak izan daitezkeen interesak itzuli egin behar ditu, honako kasu hauetakoren bat emanez gero: diru-laguntza horretarako eskatu eta eman zeneko zertarakoetarako ez erabiltzea, diru-laguntzaren jatorri izan zen ekintzarako ez erabiltzea, horietarako eskatu zeneko helburu jakinetan erabili dela ez justifikatzea edo, oro har, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren (Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolaraueti buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena) 50.2 artikuluan ezartzen diren eginbeharrak ez betetzea. Aurreko hori abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan esandakoaren arabera egingo da,

non EAEren Aurrekontu Orokorren pentzutan ematen diren diru-laguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen baitu eta horien kudeaketan parte hartzen duten Entitate Laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen baititu.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Lehenengoa.– 1. artikuluan jaso den guztirako zenbatekoa aldatu egin ahal izango da, Kultura Sailean beste programa batzuk bideratu ondoren aurrekontuak agortu gabe geratu badira. Adierazitako aldaketa gertatuz gero, haren berri Hizkuntza Politikarako sailburuordearen ebazpen baten eman beharko da, laguntzak ebatzi baino lehen.

Bigarrena.– Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak xedatutakoa betez, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzak jakinarazten dizu eman dituzun eta zure eskabidean agertzen diren datuak Eusko Jaurlaritzaren «Ayudas y Subven. Planes de Euskera» izeneko fitxategian sartu direla. Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritza da fitxategi horren titularra, eta 2006ko uztailaren 27ko Aginduan sortzeko arauan araututa dago. Fitxategiak laguntza emateko espedienteak kudeatzea du helburu. Aldez aurretik, Datuak Babesteko Agentziari eman zaio horren berri, eta datuen segurtasun osoa bermatzeko behar diren segurtasun-neurriak ezarrita ditu. Fitxategiaren datuak, bestalde, ez zaizkie beste pertsona batzuei jakinaraziko, legeak bideratutako kasuetan izan ezik.

Datu pertsonalen babesari buruz indarrean dauden araei jarraiki, eskatzaileak badu sartzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideez baliatzea, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Lege Organikoak berariaz aitortzen duen bezala. Horretarako, baduzu Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren Zerbitzu Zuzendaritzara jotzea (Donostia kalea, 1,01010, Gasteiz).

Administrazio Publikoak erkatu ahal izango ditu adierazitako datuak eta berariazko egiaztapenak egin ahal izango ditu laguntzak behar bezala esleitzeko.

Hirugarrena.– Toki-entitateek bidalitako dokumentazioaren inguruan sor litezkeen zalantzak argitze aldera, HPSk informazio gehigarria eskatu ahal izango du.

Ebazteko eskumena daukan organoak uste badu ez daukala eskabide bat ebazteko behar duen informazio guztia, beharrezko informazio gehigarria eskatu ahal izango dio eskatzaileari.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Administrazio-bidea amaitzen duen agindu honen aurka interesdunak aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dio Kulturako sailburuari, hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita. Bestela, zuzen-zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazio Auzietarako Salan bi hilabeteko epean, honako agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

Bigarrena.– Agindu honetako euskarazko eta gaztelaniazko testuen artean interpretazio-azirik sortuko balitz, jatorrizkoa euskaraz idatzitakoa dela kontuan izanik, hura hartuko litzateke aintzat.

Hirugarrena.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamuneari izango du eragina agindu honek.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko apirilaren 24a.

Kulturako sailburua,
MARÍA BLANCA URGELL LÁZARO.